



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

DoSEL proiektua Maltara iritsiko da Europako hizkuntza egindako antzerkiaren nazioarteko erakusleho bat eskaintzeko

- Apirilaren 16tik 22ra, Maltako, Esloveniako, Kroaziako eta Estoniako antzerki konpainiek beren hizkuntzetan emanaldiak eskainiko dituzte Vallettako Teatru Manoel antzokian.
- Ekitaldiak jarduera programa bat gehitzen du, besteak beste, antzerkigintza tailerrak, egonaldi artistikoak, hitzaldiak, aurkezpenak eta DoSEL proiektuan parte hartzen duten kultur espazioen bilerak, Arriaga Antzokia barne.

Bilbo, 2026ko apirilaren 13a.- Maltak Europako hizkuntza gutxituetan egindako antzerkiaren nazioarteko ospakizun bat hartuko du apirilaren 16tik 22ra. Europa osoko artistak, antzerkigileak eta kultur erakundeak herrialdeko hiriburuan, Vallettan, bilduko dira DoSEL Nazioarteko Erakustaldiaren bigarren ediziorako (lehen duela urtebete egin zen Kranjen, Eslovenian). Zazpi egunez, 16tik 22ra, erakustaldiak Maltako, Esloveniako, Kroaziako eta Estoniako antzerki konpainien lau emanaldi aurkeztuko ditu, bakoitza bere jatorrizko hizkuntzan eta ingelesezko azpiztituluekin. Emanaldiak Teatru Manoel-en izango dira 16an, 18an, 20an eta 22an. <https://teatrumanoel.mt/event/dosel/>

Ekitaldi honen bidez, DoSEL proiektuak (Drama of Smaller European Languages), Europar Batasunaren Creative Europe programak babestutako ekimenak, Europako hizkuntza gutxituetan sortutako lan dramatikoaren ikusgarritasuna ospatzen eta indartzen du berriro ere.

DoSEL Nazioarteko Erakuslehoaren bigarren edizio hau, Maltako Arte Eszenikoen Agentzia Nazionalak eta Vallettako Teatru Maltak antolatuta, 2025eko martxoan Kranjen egindako Erakuslehoan ezarritako esparru artistiko, antolakuntzazko eta diskurtsiboan oinarritzen da, eta baita urte bereko urrian Ljubljanan (Eslovenia) egindako Satellite Konferentzian ere. Horretan, bide batez, Arriaga Antzokiak paper garrantzitsua izan zuen bere *Moto-Membra Jesu Nostrri* ekoizpena erakutsi baitzuen.

Orain, Arriaga Antzokia Maltan ere egongo da DoSEL proiektuaren atzean parte hartzen duen kide eta bultzatzaile gisa, ekitaldian zehar hainbat jardueratan parte hartuz. Teatru Manoel-eko emanaldietan oinarritzen den arren, programak



antzerkigintza tailerrak, egonaldi artistikoak, hitzaldiak, aurkezpenak eta partzuergo bilerak ere eskaintzen ditu. Laburbilduz, aurkezpen artistikoa truke profesionalarekin eta ikusleen parte-hartzearekin uztartzen ditu egitarauak.

Gainera, erakusketa honek itzulpenaren balioa nabarmendu nahi du praktika artistiko bizi gisa, antzerkigileen, itzultzaileen, drama-aholkularien, interpreteen, ikertzaileen eta publikoaren arteko topaketa esanguratsuetarako aukerak sortuz. Zentzu honetan, gogorazten dugu hizkuntza gutxituetara edota hizkuntza gutxituetatik itzultzearen auzia DoSEL proiektuak jorratzen dituen erronketako bat dela. Ildo horri helduta, adibidez, Arriaga Antzokiak, Etxeparerekin lankidetzan, hizkuntza gutxituetatik antzerki-testuak itzultzeko tailer bat antolatu zuen Bilbon 2025eko apirilean.

Nazioarteko lankidetzak

DoSEL proiektua zortzi Europako kultur erakundek gauzatzen dute. Horien artean daude Bilboko Arriaga Antzokia, Kranjeko Prešeren Antzokia (Eslovenia), Arte Eszenikoen Agentzia Nazionalea (Malta), Sala Beckett (Bartzelona), Zagrebeko Kroaziako Antzoki Nazionalea (Kroazia), Estoniako Antzoki Agentzia (Tallinn, Estonia), Kosovoko Antzoki Nazionalea (Pristina, Kosovo) eta "Ivan Vazov" Antzoki Nazionalea (Sofia, Bulgaria).

DoSEL proiektuari buruzko informazio gehiago: dosel.eu



Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus

